a.- CONTRATACIÓN. APROBACIÓN DE PLIEGOS DE CONDICIONES Y CONVOCATORIA PÚBLICAS DE LICITACIONES:

- BARRENDAIN PLAZA URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN OBRAK. 2025PROB0009

- OBRAS DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE LA PLAZA BARRENDAIN.

2025-06-19ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza administratiboa onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez egitea Euskadiko kontrataziorako plataforman argitaratuz.

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
*2.- Izapidetzea: arrunta eta irekia*
*3.- Lizitazio prezioa: 1.075.063,45 € + 225.763,32 € (BEZ)= 1.300.826,77 €*
*4.- Egikaritze epea: 16 ASTE. Obrak 2025-11-3an hasi beharko dira.*
*5.- Klasifikazioa: G taldea, 6 azpitaldea eta 4. Kategoria.*
*6.- Kaudimen teknikoa: Obra burua (Arkitektoa, arkitekto teknikoa, eraikuntzako ingeniari teknikoa edo goi mailako ingeniaria, %80etik gorako dedikazioarekin), obraren arduraduna (Titulazio jakinik gabea. %100eko dedikazioa).*
*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 26 egunekoa kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.*

*8.- Adjudikazio irizpideak:*

*<u>Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)</u>*
*Memoria teknikoa: 3 azpirizpide (25 puntu)*

*<u>Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (60 puntu)</u>*
*Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.*
*Pleguan ezarritako berme epea handiagoa proposatzea: 10 puntu.*

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*
*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*

Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Territorio de fecha 19-06-2025 de aprobar el proyecto y las condiciones administrativas para la contratación de las obras de referencia y licitar mediante convocatoria pública mediante su publicación en la plataforma de contratación de Euskadi.

*1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*
*2.- Tramitación: ordinaria y abierta.*
*3.- Precio de licitación: 1.075.063,45 € + 225.763,32 € (IVA)= 1.300.826,77 €*
*4.- Plazo de ejecución: 16 semanas. Las obras darán comienzo el 3-11-2025.*
*5.- Clasificación: Grupo G, Subgrupo 6 y Categoría 4ª.*
*6.- Solvencia técnica: Jefe/a de Obra (Arquitecto/a, arquitecto/a técnico/a, ingeniero/a técnico/a de edificación o ingeniero/a superior. Dedicación superior al 80%.), encargado/a de obra (sin titulación concreta. dedicación del 100%).*
*7.- Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: 26 días a contar desde el día siguientes al de la publicación del anuncio en la plataforma de contratación. Licitación electrónica.*
*8.- Criterios de adjudicación:*
*<u>Criterios de valoración no evaluables automáticamente (40 puntos)</u>*
*Memoria técnica: tres subcriterios (25 puntos)*

*<u>Criterios mediante la utilización de fórmulas automáticas. (60 puntos)</u>*
*Oferta económica: 50 puntos.*
*Plazo de garantía superior al establecido en el pliego: 10 puntos*

*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se publique en el perfil del contratante.*
*10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique en el pliego de condiciones administrativas.*

*Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkaritza ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.*

*11.- Condiciones especiales de ejecución del contrato: En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o subcontratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla, deberá realizar para la ejecución del contrato y durante todo el plazo de ejecución, al menos una nueva de contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquella que cuente con una representación o presencia de mujeres inferiores al 40% del total de esta.*

Aldi berean ezagutzera eman da 2025-05-29an Plenoak egindako bileran, lizitazioa martxan jartzeko kreditua gehitzea onartu zuela. 2025-06-25eko datarekin kontuhartzaileak fiskalizazio txostena eman du, adieraziz aipatutako kreditu-aldaketa espedientea (2025CRAD0006) jendaurrean jarri zela eta informaziorako epean ez dela inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz hartutako erabakia behin betikoa bihurtu da eta lizitazioa egitea onartzeko behar adina kreditu dago.

Al mismo tiempo se da a conocer que en la sesión del Pleno del 29-05-2025 se aprobó un incremento de crédito para la puesta en marcha de la licitación. Con fecha 25-06-2025 la Interventora emite informe de fiscalización indicando que el citado expediente de modificación de crédito (2025CRAD0006) se sometió a información pública sin que durante el plazo de información pública se haya presentado reclamación o alegación alguna. En consecuencia, el acuerdo adoptado se eleva a definitivo y existe crédito suficiente para aprobar la licitación.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones los asistentes muestran su conformidad con la propuesta.

Tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

- “ZUMADI-BERNEDON” ERRIBERA PASEALEKUAREN URBANIZAZIO OBRAK. 2025PROB0010

2025-06-19ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza administratiboa onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez Euskadiko kontratazioko plataforman iragarkia argitaratuz:

- OBRAS DE URBANIZACIÓN DEL PASEO DE RIBERA EN “ZUMADI-BERNEDO” DE BEASAIN.

Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Territorio de fecha 19-06-2025 de aprobar el proyecto y las condiciones administrativas para la contratación de las obras de referencia y licitar mediante la publicación de un anuncio en la plataforma de contratación de Euskadi mediante convocatoria pública:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
2.- Izapidetzea: arrunta.
3.- Lizitazio prezioa: 275.824,58 €, + 57.923,16 (BEZ). Guztira: 333.747,74 €
4.- Egikaritze epea: 12 aste. Obrak 2025-11-3an hasi beharko dira.
5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa: Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 413.736,87 € gutxienez.
6.- Kaudimen teknikoa: Tituluak: Obra burua (Ingeniaritza, ingeniaritza teknikoa edo ingeniaritzan gradua edo goi mailako ingeniaria, %40ko dedikazioarekin). Obraren arduraduna (%100eko dedikazioarekin).
7.- Aurkezteko epea eta lekua: 26 egun natural, kontratazioko plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Lizitazio elektronikoa.
8.- Adjudikazio irizpideak:

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)
Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (60 puntu)
- Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.

- Pleguan ezarritako berme epea handiagoa proposatzea: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.
10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak: Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkaritza ez orekatua balu langileen artean,

1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.

2.- Tramitación: ordinaria.

3.- Precio de licitación: 275.824,58 €, + 57.923,16 (IVA). Total: 333.747,74 €
4.- Plazo de ejecución: 12 semanas. Las obras deberám iniciarse el 3-11-2025.
5.- Solvencia económica y financiera: Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas. Importe: 413.736,87 €, como mínimo.
6.- Solvencia técnica: Títulos: Jefe/a de Obra (Arquitecto/a, arquitecto/a técnico/a, ingeniero/a técnico/a de edificación o ingeniero/a superior.
Dedicación superior al 40%), encargado/a de obra (dedicación del 100%).
7.- Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: 26 días naturales a contar desde el día siguiente al de su publicación en la plataforma de contratación. Licitación electrónica.
8.- Criterios de adjudicación:

Criterios de valoración no evaluables automáticamente (40 puntos)
Criterios mediante la utilización de fórmulas automáticas. (60 puntos)
Oferta económica: 50 puntos

Plazo de garantía superior al establecido en el pliego: 10 puntos

9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se publique en el perfil del contratante.

10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique el en pliego de condiciones administrativas.

11.- Condiciones especiales de ejecución del contrato: En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o

*kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.*

*subcontratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla, deberá realizar para la ejecución del contrato y durante todo el plazo de ejecución, al menos una nueva de contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquella que cuente con una representación o presencia de mujeres inferiores al 40% del total de esta.*

Aldi berean ezagutzera eman da 2025-05-29an Plenoak egindako bileran, lizitazioa martxan jartzeko kreditua gehitzea onartu zuela. 2025-06-25eko datarekin kontuhartzaileak fiskalizazio txostena eman du, adieraziz aipatutako kreditu-aldaketa espedientea (2025CRAD0006) jendaurrean jarri zela eta informaziorako epean ez dela inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz hartutako erabakia behin betikoa bihurtu da eta lizitazioa egitea onartzeko behar adina kreditu dago.

Al mismo tiempo se da a conocer que en la sesión del Pleno del 29-05-2025 se aprobó un incremento de crédito para la puesta en marcha de la licitación. Con fecha 25-06-2025 la Interventora emite informe de fiscalización indicando que el citado expediente de modificación de crédito (2025CRAD0006) se sometió a información pública sin que durante el plazo de información pública se haya presentado reclamación o alegación alguna. En consecuencia, el acuerdo adoptado se eleva a definitivo y existe crédito suficiente para aprobar la licitación.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.
Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones los asistenten muestran su conformidad con la propuesta.

Sometida a votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

- <u>BEASAINGO GAZTELEKUA GAUZATZEKO OBRAK</u>. 2025PROB0011

- <u>OBRAS DE EJECUCIÓN DEL GAZTELEKU DE BEASAIN.</u>

2025-06-19ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza administratiboa onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez Euskadiko kontratazioko plataforman iragarkia argitaratuz:

Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Territorio de fecha 19-06-2025 de aprobar el proyecto y las condiciones administrativas para la contratación de las obras de referencia y licitar mediante la publicación de un anuncio en la plataforma de contratación de Euskadi mediante convocatoria pública:

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
*2.- Izapidetzea: arrunta.*
*3.- Lizitazio prezioa: 153.581,92 €, + 32.252,20 (BEZ). Guztira: 185.834,12 €*

*1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*
*2.- Tramitación: ordinaria.*
*3.- Precio de licitación: 153.581,92 €, + 32.252,20 (IVA). Total: 185.834,12 €*

*4.- Egikaritze epea: 16 aste. Obrak 2025-11-3an hasi beharko dira.*
*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa: Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 230.372,88 € gutxienez.*
*6.- Kaudimen teknikoa: Tituluak: Obra burua (Ingeniaritza, ingeniaritza teknikoa edo ingeniaritzan gradua edo goi mailako ingeniaria, %40ko dedikazioarekin). Obraren arduraduna (%100eko dedikazioarekin).*
*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 26 egun natural, kontrataziorako plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Lizitazio elektronikoa.*
*8.- Adjudikazio irizpideak:*

*Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)*
*Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (60 puntu)*
*- Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.*
*- Pleguan ezarritako berme epea handiagoa proposatzea: 10 puntu.*

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak: Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkaritza ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da*

*4.-Plazo de ejecución: 16 semanas. Las obras deberán iniciarse el 3 de noviembre de 2025.*
*5.- Solvencia económica y financiera: Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas. Importe: 230.372,88 €, como mínimo.*
*6.- Solvencia técnica: Títulos: Jefe/a de obra (Arquitecto/a, arquitecto/a técnico/a, ingeniero/a técnico/a de edificación o ingeniero/a superior. Dedicación superior al 40%), encargado/a de obra (Dedicación del 100%).*
*7.- Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: 26 días naturales a contar desde el día siguiente al de su publicación en la plataforma de contratación. Licitación electrónica.*
*8.- Criterios de adjudicación:*

*Criterios de valoración no evaluables automáticamente (40 puntos)*
*Criterios mediante la utilización de fórmulas automáticas. (60 puntos)*

*Oferta económica: 50 puntos.*

*Plazo de garantía superior al establecido en el pliego: 10 puntos*
*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se publique en el perfil del contratante.*

*10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique el en pliego de condiciones administrativas.*

*11.- Condiciones especiales de ejecución del contrato: En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o subcontratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla, deberá realizar para la ejecución del contrato y durante todo el plazo de ejecución, al menos una nueva de contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en*

*emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “ Pozten gara gaztelekua jartzearekin baina gure ustetan ez da toki egokia. Lokal egokiagokoak badaude.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez dugu toki egokiagorik ikusi. Lokala erosteko aukera izan genuen eta guretzat toki egokia da: Erdigunean dago, inguruan plaza du eta kanpoan ere jarduerak egin daitezke. Guk proposatzen duguna da asteburuetan irekitzen joan apurka-apurka, bertara joateko ohitura hartu, euskara sustatu eta aisia haztatu eta erantzuna ona izanez gero, egun gehiagotan zabaldu.”

Bozketa eginda, ondorengoa emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gaia gehiengo osoarekin onartu da.

b.- <u>KONTRATAZIOA: BEASAINGO HAINBAT URBANIZAZIO BERRITZEKO OBREN KONTRATAZIOA</u>. 2025PROB0007

Ezagutzera eman da 2025-06-24ko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

*A artxibo elektronikoari buruzko aktaren jarraipen gisa, eta kontratatzailearen profilean automatikoki ebaluatzen ez diren balorazio-irizpideen txostena argitaratu ondoren (bertan, enpresek obraren azterketan eta plangintzan eta*

*contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquella que cuente con una representación o presencia de mujeres inferiores al 40% del total de esta.*

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasain EH Bildu): "Nos alegramos de la instalación del gazteleku pero creemos que no es un lugar adecuado, existen locales más adecuados. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "No hemos encontrado un lugar más adecuado. Tuvimos la oportunidad de comprar el local y para nosotros es un lugar adecuado: está en el centro, tiene plaza alrededor y también se pueden realizar actividades en el exterior. Lo que proponemos es que los fines de semana se vaya abriendo poco a poco, que los jóvenes se acostumbren a ir allí, que se fomente el euskera y que se tome el pulso al ocio y que, si la respuesta es buena, se amplíe más días. "

Tras realizar la votación se obtiene el siguiente

Votos a favor: 5 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (Beasaingo EH Bildu)

En consecuencia, se aprueba por la mayoría absoluta.

b.- <u>CONTRATACIÓN: ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS DE REFORMA DE VARIAS URBANIZACIONES DE BEASAIN.</u>

Se da a conocer la propuesta de la mesa de contratación del 24-06-2025

*Como continuación al acta relativa al archivo electrónico A y tras publicarse en el perfil del contratante el informe de los criterios de valoración no evaluables automáticamente, en*

*izan ditzaketen eraginen azterketan lortutako puntuazioa jasotzen da), B artxibo elektronikoa irekitzen da ekitaldi publikoan (formula bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa):*

*1.- Eskaintza ekonomikoa: 65 puntu.*

*Lizitazio prezioa: 387.460,99 € + 81.366,8 (BEZ) = 468.827,80 €*

*2.- Pleguan ezarritakoa baino berme-epe luzeagoa (urtebete): 10 puntu.*

*Eskaintzen irekiera egin ondoren, lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak ondorengoak izan dira:*

*el que consta la puntuación obtenida por las empresas en el estudio y planificación de la obra y en el estudio de las posibles afecciones, se procede en acto público a la apertura del archivo electrónico B (documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas):*

*1.-Ofertaeconómica: 65 puntos.*

*Precio de licitación: 387.460,99 € + 81.366,8 (IVA) = 468.827,80 €*

*2.- Plazo de garantía superior al establecido en el pliego (un año): 10 puntos.*

*Realizada la apertura las ofertas presentadas por las licitadoras han sido las siguientes:*

| | Eskaintza | Berme epea |
|---|---|---|
| CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA. S.L. | 348.329,82 + 73.149,26 (IVA) | 0 + 1 |
| ASFALTOS URRETXU, S.A | 361.346,12 + 75.882,69 (IVA) | 8+ 1 |

*Aurkeztutako eskaintzak baloratu ondoren, lizitatzaileek lortutako puntuazio ondorengoa da:*

*Valoradas las ofertas presentadas la puntuación obtenida por las licitadoras es la siguiente:*

| | CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA. S.L. | ASFALTOS URRETXU, S.A |
|---|---|---|
| Memoria | 23 | 16,5 |
| Eskaintza ekonomikoa | 13,13 | 8,76 |
| Berme epea | 0 | 10,00 |
| GUZTIRA | 36,13 | 35,26 |

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Tokiko Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

*Lehenik: CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA. S.L., enpresari ondorengo obrak esleitzea: Beasaingo hainbat urbanizazio aldaketak.*

*Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.*

*Hirugarren. Kontratuaren prezioa:*

*En consecuencia, la Mesa de Contratación efectúa la siguiente propuesta de acuerdo al órgano de contratación (Junta de Gobierno Local)*

*Primero . Adjudicar a CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA. S.L., las obras de modificación de varias urbanizaciones de Beasain.*

*Segundo. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones (administrativo y técnico) y a la oferta presentada por la empresa.*

*Urteko lizitazio prezioa: 348.329,82 + 73.149,26 (BEZ)*

*Tercero. Precio del contrato: Precio de licitación anual: 348.329,82 + 73.149,26 (IVA)*

*Laugarren. Egikaritze epea: 16 aste, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.*

*Cuarto . Plazo de ejecución: 16 semanas a contar del día siguiente al de la firma del acta de replanteo.*

*Luzapenak: EZ*

*Prórrogas: NO*

*Bosgarren. Berme epea: Un año*

*Quinto . Plazo de garantía: Urte bete*

*Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Lurralde arloko Zerbitzuburua izango da.*

*Sexto . Se designa como responsable del contrato al Jefe de Servicios del área de Territorio.*

*Zazpigarren. Esleipendunari eskatzea zazpi egun baliodunekoepean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, kontratazio plataformaren bidez dokumentazio hau aurkez dezala:*

*1. 17.416,49 €ko behin betiko fidantza edo banketxeko abala.*
*2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.*

*3. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000,00 €koa.*

*4. Obra buruaren titulua*

*Séptimo. Requerir a la empresa adjudicataria para que en un plazo de siete díashábiles a contar a partir del siguiente al del requerimiento, aporte a través de la plataforma de contratación la siguiente documentación:*

*1. Fianza definitiva o aval bancario por valor de 17.416,49 €.*
*2. Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, alta en IAE.*
*3. Póliza de seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe no inferior a 600.000,00 €.*

*4. Título del Jefe de Obra*

*Bederatzigarren. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako Alkateari baimena ematen zaio. Ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da."*

*Noveno. Tras presentar la fianza y demás documentación, se efectuará la adjudicación definitiva para lo cual se faculta a la Alcaldesa y posteriormente se deberá firmar el correspondiente contrato administrativo."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Gu abstenitu egingo gara, lizitazioa onartzerakoan ere abstenitu egin ginelako, 2025-05-29ko aktan adierazitako arrazoiengatik."

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros nos abstendremos porque al aceptar la licitación también nos abstuvimos por los motivos expresados en el acta del 29-05-2025."

Bozketa eginda, ondorengoa emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gaia gehiengo osoarekin onartu da.

Tras la votación se obtiene el siguiente resultado:

Votos a favor: 5 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstenciones: se aprueba por la mayoría absoluta.

c.- PROIEKTUA: BEASAINGO ORIA IBAIERTZEAN BIDE NATURAL BAT BURUTZEARI BURUZKO PROIEKTUA ONARTZEA. 2025PROB0006

c.- PROYECTO: APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN DE UNA SENDA NATURAL EN LA RIBERA DEL ORIA EN BEASAIN.

2025-06-19ko Lurralde Batzordearen proposamena da aipatutako proiektua onartzea, bidea egiteko behar diren lurrak erosi ahal izateko.

La Comisión de Territorio de fecha 19-06-2025 propone aprobar el proyecto de referencia para la adquisición de los terrenos necesarios para la ejecución del vial.

Udalari aholkularitza ematen dion arkitektoak emandako txostenaren arabera, proiektuaren xehetasunak hauek dia.

De acuerdo con el informe emitido por el arquitecto que asesora al Ayuntamiento, el detalle del proyecto es el siguiente:

- Sustatzailea: Beasaingo udala.

-Promotor: Ayuntamiento de Beasain

- Helburua: Plataforma berri bat egitea, Oria ibaiaren eskuinaldean oinezkoentzako bide bat sortzeko, hirigunea, Zumadi industrialdearen parean, eta Altamira auzora eta Indar aldera joateko dagoen oinezkoentzako bidea lotzeko.

-Objeto: la ejecución de una nueva plataforma para la generación de un camino peatonal en el margen derecha del río Oria, que una el casco urbano, a la altura del polígono industrial Zumadi, con el vial peatonal de acceso al barrio Altamira e Indar.

- Egin beharreko obren eta ibilbide berriaren ezaugarriak:
Ibilbide berria Zumadi industrialdearen atzealdean hasten da, Olaondo-Scania pabiloiaren parean. 42 metroko zurezko pasabide baten bidez, Oria ibaia zeharkatzen du, eta, neurri handi batean, lehendik zeuden baso-bideak aprobetxatuz, eta, zati batzuetan, plataforma berriak eginez, Igartza parean dagoen N-1 errepidearen gaineko metalezko pasabidetik Indar aldera doan hormigoizko bidera iristen da.

-Características de las obras y el nuevo itinerario:
El nuevo itinerario tiene su origen en la zona trasera del polígono industrial Zumadi, a la altura del pabellón de Olaondo-Scania. A través de una pasarela de madera de 42 m, cruza el río Oria, y en gran parte aprovechando caminos forestales preexistentes, y en parte mediante la ejecución de nuevas plataformas, llega al camino de hormigón existente, que une la pasarela metálica existente sobre la N-1 a la altura de Igartza con Indar.

Ibilbidearen luzera, guztira, 810 metro ingurukoa da, eta gutxi gorabehera 2 metroko zabalera du (zertxobait txikiagoa eremu malkartsuagoetan edo espazio gutxi dagoenetan).
Zoruak 25 cm-ko zabor-legar naturala edo todo-uno izango du, zurezko baranda jarriko da erortzeko arriskua dagoen eremuetan eta argiztapena izango du.

- Gauzatze materialaren aurrekontua: 490.323,49 €

- Proiektua gauzatzeko eskuratu beharreko lurrak:

Bide berriaren zati handiena titulartasun pribatuko lurretatik igarotzen da (4 katastro-finka). Oria ibaitik gertu dagoenez, eta sakabanatutako finka berriak agertzea saihesteko, egokitzat jo da bidea egiteko behar diren lursailez gain (bidea +ezpondak+lur-erauzketak) -4.090m2-, bidea eta Oria ibaiaren artean daudenak ere -9.081m2—eskuratzea..

- Ondasun eta eskubideak erosteko duen kostu estimatua: 60.000,00 €

- Eskuratu beharreko finka horiek jabeak: Hiru titular dira, bata pertsona juridikoa eta beste biak partikularrak.

Idazkari andreak azaldu du, proiektua onartzen dela babes juridikoa izateko obrak egiteko behar diren lurrak eskuratzeko. Nahiz eta proiektuan aurreikusita egon desjabetze prozedura, titularrekin hitz eginda gero adostu da salerosketa bidez egitea.
Ezagutzera eman da, proiektatutako bideak jarraipena izango lukeela Olaberria-Idiazabal lotzen dituen eta Endarak idatzi duen proiektuarekin. Horretarako, agian, Foru Aldundiak laguntza emango du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Eza Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du ados daudela proiektuarekin irisgarritasuna bermatzen delako.
Bozketa eginda, aho batez onartu da aipatutako proiektua.

La longitud total del recorrido es aproximadamente de 810 m, y tiene una anchura aproximada de 2 m (algo menor en ciertas zonas más escarpadas o con menor espacio).
El firme estará compuesto por 25 cm de zahorra natural o todo uno; y se dispondrá de barandilla de madera en aquellas zonas con riesgo de caída y alumbrado.

-El presupuesto de ejecución material es de 490.323,49 €*.

-Terrenos a adquirir para la ejecución del proyecto:

El nuevo camino discurre, en su mayor parte, por terrenos de titularidad privada (4 fincas catastrales). Debido a su cercanía al río Oria, y con el objeto de evitar la aparición de restos de fincas disgregadas, se ha considerado oportuno la obtención de los terrenos necesarios para la ejecución del vial (vial+taludes+desmontes) -4.090m2-; así como los situados entre éste y el río Oria -9.081m2-.

-Estimación del coste para la obtención de los bienes: 60.000€.

-Los propietarios de las fincas a adquirir son tres titulares, uno persona jurídica y los otros dos particulares.

La Sra. Secretaria explica que se aprueba el proyecto para adquirir los terrenos necesarios para la ejecución de las obras de protección jurídica. A pesar de que el procedimiento expropiatorio está previsto en el proyecto, en diálogo con los titulares se ha acordado su realización mediante compraventa.
Se informa que el vial proyectado continuaría con el proyecto de conexión Olaberria-Idiazabal redactado por Endara. Para ello, tal vez la Diputación Foral colabore.

En el turno de intervenciones Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), manifiesta su acuerdo ya que con el proyecto se garantiza la accesibilidad.

Sometido a votación se aprueba por unanimidad el proyecto de referencia.

d.- BEASAINGO UDALA ETA GIPUZKOAKO URAK SA-EN ARTEKO HITZARMENA BARRENDAIN PLAZAKO URBANIZAZIOKO PROIEKTUKO OBRAK FINANTZATZEKO. 2025PROB0009

Ezagutzera eman da Barrendain plaza urbanizatzeko proiektuak bi obra mota ezberdinak dituela:

1.- Trenbide kalea, Nafarroa etorbidea eta Garmendia Otaola kalea eta Garmendia Otaola kalearen eta Oriamendi kalearen arteko bidegurutzea; eta jabari publikoko oinezkoentzako espazio libreak eta Barrendain plazako aldaketa osoa.
2.- Ur hornikuntza zein ur zikinen azpiegituran matxurak murriztu.
Lehenengoak, Beasaingo udalaren kontura joango dira eta bigarrengoak, berriz, Gipuzkoako Uraren Kontura.
Horien finantzaketa eta ordaintzeko modua auratzeko, Lurralde batzordeak 2025-06-19an egindako bileran ondorengo lankidetza hitzarmena sinatzea proposatu du:

d.- CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y GIPUZKOAKO URAK SA., PARA FINANCIAR LAS OBRAS DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE BARRENDAIN PLAZA.

Se informa que el proyecto de urbanización de la plaza Barrendain tiene dos tipos de obras diferentes:

1.- Intersección de las calles Trenbide Kalea, Nafarroa Etorbidea, Garmendia Otaola y cruce con Oriamendi Kalea y espacios libres peatonales de dominio público y la modificación completa de la plaza Barrendain.
2.- Reducir las averías en las infraestructructuras *de Saneamiento y Abastecimiento.*

La primera correrá a cargo del Ayuntamiento de Beasain y la segunda a cargo de Gipuzkoako Ura.
Con el fin de regular su financiación y forma de pago, la Comisión de Territorio, en reunión celebrada el 19-06-2025, propone la firma del siguiente convenio de colaboración:

*“ONDORENGOAK ELKARTU DIRA:*

*BATETIK: Leire Artola Ugalde anderea, zenbakiduna, jakinarazpen helbidea Beasaingo udaletxean, hau da, Loinazko San Martin Plazan, duena. Beasaingo Alkate gisa, 2023ko ekainaren 17ko Udalbatzan hartu baitzuen kargua. Udalaren ordez jarduten du eta Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, 21.1b) artikuluak ematen dio horretarako eskumena.*

*BESTETIK: Iñigo Elosegi Vallejo jauna, zenbakiduna, jakinarazpen helbidea Gipuzkoako Urak, hau da, Portuetxe 16, 1 solairua 20018 Donostian, duena. Gipuzkoako Urak S.A.-ren Zuzendari gisa. Gipuzkoako Urak, S.A.ren ordez jarduten du eta horretarako baimena, 1994ko martxoaren 1an, 1994/535/N/01/03/1994 protokolo zenbakia duen eta Juan Aurelio Lázaro Pérez Notarioaren aurrean sinatutako ahalmen-eskriturak ematen dio.*

*AURREKARIAK*

*I.- 2004-11-05ean Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Urak-en artean hitzarmena sinatu zen, azken entitate honek uraren ziklo integralaren kudeaketa eramateko (uraren hornidura eta saneamenduaren, “altako” eta “bajako” sareen kudeaketa) eta beharrezko inbertsioak egiteko. Horretarako Beasaingo Udalak bere titularitateko emakida, emari-aprobetxamenduak, azterlanak, proiektuak, sareak, instalazioak eta kontsortziatutako zerbitzuei lotutako beste baliabideak Kontsortzioaren esku jarri zituen.*

*Aldi berean Beasaingo Udalak GIPUZKOAKO Urak-en esku utzi zituen uraren inguruko zerbitzuak emateko eta helburuak erdiesteko dituen ahalmenak, eskumenak, gaitasunak, botereak, eskubideak eta betebeharrak.*

*II.- Aipatutako hitzarmenaren iraupena hamar urtetarako finkatu zen, 2005-01-01etik kontatzen hasita eta amaitzear zegoenean luzatzea erabaki zen. Luzapen hitzarmena, 2014/11/26an sinatu zen hamar urteetarako iraupenarekin 2015-01-01etik kontatzen hasita.*

*III.- Hitzarmen horien ondorioz alde batetik, Gipuzkoako Urak uraren ziklo integrala 2005eko urtarrilaren 1tik aurrera kudeatu izan du Beasaingo udalerrian. Bestetik, denboraldi horietan beheko sarean inbertsioak egiteko konpromisoa hartu izan du.*

*IV.- Azkeneko hitzarmenaren 10 urteko epealdia amaitu baino lehen, 2024-04-25ean Udalbatza Osoak erabaki zuen, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa (bi sareena, "goia" eta "behea") eta baita beharrezkoak diren inbertsioak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOREN esku jarraitzeko eta Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez gauzatzeko, hitzarmen berri bat onartzea.*

*Hitzarmen berri horrek:*

- *2004ko hitzarmenaren bidez BEASAINgo UDALAk, emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziotatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren esku-uztea berretsi egiten du.*
- *Aurreikusten du, obra-proiektu bakoitza gauzatu aurretik Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Urak, E.A.ren arteko hitzarmena formalizatuko dela, hauek adieraziz:*

- *Proiektuaren sustatzailea nor izango den adieraztea eta idazlana kontratatzeaz gain, obraren zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazio-lanen ardura norena izango den zehaztea.*
- *Obren aurrekontua.*
- *Inplikatutako alderdiek ordaindu beharreko ehunekoa.*
- *Obrak lizitatzeko eta kontratatzeko ardura duen erakundea.*
- *Kontratugilea ez denak dagokiona ordaintzeko prozedura zehaztea.*

*Hitzarmena, 2025eko apirilaren 30ean sinatu zen. Indarrean sartu zen, 2025eko urtarrilaren 1ean eta gutxienez 10 urteko iraupena izango du.*

*V.- Idatzitako proiektuaren arabera, jarduketa-eremua Trenbide kalea, Nafarroa etorbidea eta Garmendia Otaola kalea eta Garmendia Otaola kalearen eta Oriamendi kalearen arteko bidegurutzea; eta jabari publikoko oinezkoentzako espazio libreak eta Barrendain plazako aldaketa osoa.*

*Beasaingo udalak, berrurbanizazio lan horien beharra identifikatu ostean, 2025 urteko aurrekontu ekitaldian zehaztu du bere gauzatzea, kontuan izanda Barrendain Plaza eta aipatutako kaleak eta ur hornikuntza hoditeria zein estolderia azpiegiturak udalaren jabari publikokoak direla, erabilera publikoa dutelako.*

*Urbanizazio-obren kokapena: Eremua herriaren hegoaldean dago, Beasaingo tren-geltokiaren iparraldean, Nafarroa etorbidearen eta Trenbide kalearen artean, Barrendain plazan.*

*Jarduketaren azalera 5.579,90 m²-koa da.*

*Berrurbanizazio obra lanen beharra Gipuzkoako Urak enpresari helarazi ostean, Barrendain Plaza eta aipatutako kaleen ur hornidura sarearen et*

*a ur zikinen sarearen berrikuntza beharrezkoa dela ebatzi du.*

*VI.- Horregatik, oportunitateari dagokionez, bi inguruabar hauek (azpiegituren eta urbanizazioaren berrikuntza obrak) garai beretsuan burutuko direnez, denbora ikuspegitik, hitzarmen hau orain egitea egokia dela iritzi diote bi aldeek.*

*V.- Idatzitako proiektuaren arabera, jarduketa-eremua Trenbide kalea, Nafarroa etorbidea eta Garmendia Otaola kalea eta Garmendia Otaola kalearen eta Oriamendi kalearen arteko bidegurutzea; eta jabari publikoko oinezkoentzako espazio libreak eta Barrendain plazako aldaketa osoa.*

*Beasaingo udalak, berrurbanizazio lan horien beharra identifikatu ostean, 2025 urteko aurrekontu ekitaldian zehaztu du bere gauzatzea, kontuan izanda Barrendain Plaza eta aipatutako kaleak eta ur hornikuntza hoditeria zein estolderia azpiegiturak udalaren jabari publikokoak direla, erabilera publikoa dutelako.*

*Urbanizazio-obren kokapena: Eremua herriaren hegoaldean dago, Beasaingo tren-geltokiaren iparraldean, Nafarroa etorbidearen eta Trenbide kalearen artean, Barrendain plazan.*

*Jarduketaren azalera 5.579,90 m²-koa da.*

*Berrurbanizazio obra lanen beharra Gipuzkoako Urak enpresari helarazi ostean, Barrendain Plaza eta aipatutako kaleen ur hornidura sarearen et*

*a ur zikinen sarearen berrikuntza beharrezkoa dela ebatzi du.*

*VI.- Horregatik, oportunitateari dagokionez, bi inguruabar hauek (azpiegituren eta urbanizazioaren berrikuntza obrak) garai beretsuan burutuko direnez, denbora ikuspegitik, hitzarmen hau orain egitea egokia dela iritzi diote bi aldeek.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Aipatutakoa, oinarri juridiko hauen babesean gauzatuko da:*

*- 40/2015 legeko 49.b) artikuluak xedatu duenez, Beasaingo Udalaren eskuduntza zein den zehaztu behar da. Ondorengo legerietan aurreikusten da:*

> *Apirilaren 2ko 7/85 legeak, 25.2c) artikuluan Udalaren "eskuduntza propio edo berezko" gisa izendatu du honakoa: etxebizitzetara ur edangarria hornitu eta hondakin-uren hustuketa zein tratamendua. Areago, 26.1.a)artikuluan, "nahitaez eman beharreko zerbitzuen" artean, ur edangarria etxebizitzetara hornitzea, estolderia eta bide publikoen zoladura aipatu ditu.*
>
> *Bestalde, 26.2. b) artikuluaren arabera, ur edangarri hornikuntza eta ur –zikinen hustuketa zein tratamendua, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan, Foru Aldundi bidez gauza daitezke. Azken hau Foru Aldundiak zuzenean ala "elkarbanatutako kudeaketa" bitartez, Kontsortzioak edota mankomunitateak direla medio, gauzatu ahal izango du ( 26.2 art. " in fine").*
>
> *Aurreko artikuluaren irizpidearekin bat dator Euskadiko toki erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 legea. Hain zuzen ere, 104. 2 artikuluari jarraiki, Kontsortzioa hobetsiko da udalerrien "gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak" modu partekatuan kudeatzeko.*

*- Urriaren 1eko 40/2015 legearen 47.1 artikuluak, aukera eman dio Administrazioari zuzenbide publikoko entitateekin hitzarmenak izenpetzeko, beren xede nagusia interes publikoa betetzea bada. Doi-doi, 40/2015 legeko 118.1. artikuluak Kontsortzioak " zuzenbide publikoko entitate" gisa definitu ditu.*

*- Izaera juridikoari dagokionez, hitzarmen hau 40/2015 legeko 47.2.a) artikuluak deskribatutako "hitzarmen inter-administratiboa" dugu; alegia, Administrazio publiko ezberdin baten menpeko den entitate publiko batek eta Administrazio publiko batek adostutako akordioa dugu eta gainera, eragin juridikoak dituena.*

*Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri hitzartzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau egitea adostu dute, urriaren 1eko 40/2015 legeko 48.3 artikuluan oinarrituta, ondorengo estipulazioen arabera:*

*ESTIPULAZIOAK*

*LEHENIK: HELBURUA. Hitzarmen honen xede nagusia bikoitza da:*

- *Plaza eta kalearen urbanizazioa berritu eta irisgarritasuna hobetu.*
- *Ur hornikuntza zein ur zikinen azpiegituran matxurak murriztu.*

*BIGARREN: KONPOKETA LANEN ZEHAZTAPENA*

*Obren edukiari dagokionez, egokitze lanak hauexek dira:*

- *Urbanizazio lanak. Egungo plaza, espaloiak eta errepideak eraitsi, onartutako Proiektuan zehazten diren azaleretan egungo espaloiak eta errepideak eta lurpeko instalakuntzak berritu.*
- *Ur hornikuntza hoditeria eta estolderia azpiegitura berritu, egun dagoen saneamendu sistema bateratua bitan banatuz, euri urak eta ur zikinak hoditeria ezberdinetan jaso ahal izateko.*
- *Egungo ur hornidura sarea guztiz aldatu.*

*Lan hauek guztiak burutu ahal izateko Proiektuak beharrezkoak diren obra atalak zehazten ditu.*

*HIRUGARREN: FINANTZAZIO KONPROMISOAK*

*Obretatik ondorioztatutako gastuak, Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Urak ordainduko dituzte:*

- *Beasaingo Udalak plaza, espaloien eta errepidearen konponketa lanen gastuei aurre egingo die.*
- *Gipuzkoako Urak aldiz, ur hornidura sarearen eta ur zikinen sarearen berrikuntza lanak hartuko ditu bere gain.*

*LAUGARREN: GASTUEN BANAKETA ETA AURREKONTUA*

*Gastuen banaketa*

*GIPUZKOAKO URAK 127.915,19 € + BEZ*

*BEASAINGO UDALA 947.148,25 € + BEZ*

*Gastuen banaketa, hitzarmen honi atxikitzen zaion aurrekontu bananduaren arabera burutuko da. Obra lanak bukatzean, azken neurketetan esleitutako aurrekontutik alderik balego, hauen izaeraren baitan gain hartu beharko dituzte Gipuzkoako Urak nahiz Beasaingo Udalak.*

*Obra Zuzendaritza eta Obra Gauzatzeko Zuzendaritza gastuei dagokienean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ur hornidura eta ur zikinen sareari dagozkionak hartuko ditu bere gain eta Beasaingo Udalak aldiz, gainontzeko lanei dagokiena.*

*Aldiz, Obraren Segurtasun eta Osasun koordinatzailearen gastuak Beasaingo Udalak hartuko ditu bere gain.*

*Aurrekontua*

*Horretarako bi alderdiek honakoa dute aurreikusita kontabilitate eta aurrekontu agirietan:*

- *Beasaingo Udalaren aurrekontu aplikazioa: 1 0350.601.153.20.04 2025 Kontusaila.*
- *Gipuzkoako Urak-en 2025 aurrekontua.*

*Finantza konpromiso hauek jasangarriak dira guztiz, urriaren 1eko 40/2015 legeko 48.5 artikuluari begira. Eta ekarpen ekonomiko hauek ezin dituzte inola ere, hitzarmenaren exekuzioaren ondoriozko gastuak gainditu, 40/2015 legeko 48.6 artikulua betez.*

*BOSGARREN: ALDERDIEN BETEBEHARRAK.*

*Obraren kontratazio espediente osoa, hasieratik bukaerara, Beasaingo Udalak gauzatuko du, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Lege-testu bateratuari jarraituz. Kontratazioaren helburuan, hitzarmen honen bigarren estipulazioan jasotako lan guztiak aurreikusiko dira.*

*Obrak eragin zuzena izango du bai oinezkoen pasabidean bai motordun ibilgailuen trafikoan. Horregatik, obra hasi aurretik obra zuzendaritzak, Beasaingo udaltzaingoarekin koordinatuko ditu beharrezko diren neurri guztiak. Obran zehar oinezkoen zein ibilgailuen segurtasuna bermatuko da une oro.*

*Enpresa kontratistak, obra-ziurtagiriak hilero aurkeztuko dizkio Beasaingo Udalari. Obra-ziurtagiri horiek, Obra Zuzendariaren, Obra Gauzatze Zuzendariaren, Ur Kontsortzioko teknikarien (bere ataletan dagokienean) eta Beasaingo Udaleko teknikarien (bere ataletan dagokienean) oniritzia beharko dute.*

*Obra-ziurtagiri horietan, enpresa kontratistak, nahitaez bereiztuko ditu, alde batetik, kalearen urbanizazio lanen neurketak eta bestetik, ur hornidura eta ur zikinen sarearen lanak. Izan ere, Beasaingo udalak soilik, urbanizazio lanei dagokien gastua hartuko baitu bere gain.*

*Gipuzkoako Urak hirugarren eta laugarren estipulazioan zehaztutako obren gastuen zenbatekoa, Beasaingo udalari ordainduko dio, Beasaingo Udalak egindako jarduketak jasotzen dituzten obra-ziurtagirien onarpen-egiaztagiriak Gipuzkoako Urak-i bidali ahala.*

*SEIGARREN: HITZARMENAREN IRAUPENA*

*Hitzarmenaren iraun-aldia obren exekuzioaren menpe egongo da. Lanak amaitu ondoren, obren "harrera formala", bi aldeek izenpetutako akta bidez, burutuko da. Akta honen bidez emango dira obrak amaitutzat.*

*Gehienera ere lau urteko iraupena izango du, "obren zuinketa akta" konprobatu eta obrak exekutatzen hasten direnetik kontatzen hasita, beste lau urtez luzatzeko kalterik gabe.*

*ZAZPIGARREN: JARRAIPEN, ZAINTZA ETA KONTROL MEKANISMOAK:*

*Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:*

*- Udal-erakundearen aldetik, Lurralde Batzordeko zinegotzi arduraduna eta Lurralde Saileko zerbitzu burua.*

*- Gipuzkoako Urak-en aldetik, Joxemi Telleria eta Teresa Peñalba.*

*ZORTZIGARREN: ALDERDIEN ARTEKO JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK*

*Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie:*

*- Udalaren aldetik: Lurralde Saileko zerbitzu buruari.*

*- Gipuzkoako Urak-en aldetik, Teresa Peñalba andreari.*

*BEDERATZIGARREN: ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK:*

*Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.*

*HAMARGARREN: HITZARMENA BERTAN BEHERA GERATZEA:*

*1- Epea amaitutakoan.*

*2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.*

*3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.*

*4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala egoteagatik.*

*Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebehar eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.*

*Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.*

*Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketen jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.*

*HAMAIKAGARREN. HITZARMENAREN IZAERA ETA JURISDIKZIO APLIKAGARRIA:*

*Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.*

*Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.*

*Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.*"

Hitz egiteko txanda eman ostean, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

**4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko seiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

En el turno de intervenciones los asistentes muestran su conformidad con la propuesta.

En consecuencia, tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

**4.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

En el apartado de ruegos y preguntas no se ha formulado ninguna.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecisiete horas y cincuenta y cinco minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.